

# Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2003ko abenduaren 12a / 565. zenbakia

## GRAN CAPITAN ESKALATZEN



MIKEL URIBESALGO ETA  
UNAI BEITIA YOSEMITEN  
IZAN DIRA



## ARREGI AROZTEGIA

PVCzko  
LEIHOAK

Zatoz gure  
erakusketa handitu  
eta berritura.  
Bidekurutzeta  
38an gaude.

HORMA ARMAIRUAK



SUKALDEAK

ATEAK ETA  
LEIHOAK

BAITA ERE: Tarimak, parketak • Gradulux pertsiana eta kortina graduagarriak • Flex koltxoiak • Mota guztietako arozlanak

Tailerra Urteaga, 20. 943 76 11 73 Erakusketa Bidekurutzeta, 38. 943 76 31 03

GOIENAN HERRIZ HERRI:  
BERGARA

Victoriano Gallastegi,  
Bergarako alkatearekin berbetan

Martitzenean, abenduaren 16an,  
20:30ean

**Aurkezlea:**  
Alberto Gorritiberea


**Parte hartzeko telefonoa:**  
943 71 23 93



Goiena Telebista

Ikusiko  
duzu!

GOIENAN HERRIZ HERRI / Babeslea:




**ATREBENTZIA EZPADA / Gabonetan etxea modu bereziann apaintzen dozue?**



**PACO HORRILLO**  
45 urte




**MARIA DEL MAR POMBAR**  
35 urte



**SILVESTRE BEGIRISTAIN**  
72 urte



**MAITE JUAN**  
30 urte



**SERAFIN QUINTANA**  
57 urte



**MARI CARMEN CONDE**  
48 urte

Bai, badaukagu arbola eta beste apaingarri batzuk jartzeko ohitura. Jaiotza ere jartzen dogu zenbaitetan. Gustuko ditut Gabonak. Laster hasiko gara prestaketa lanetan.

Bai, aste honetan jarri dogu arbola eta jaiotza. Alabari gustatzen jako horiek jartzea. Izebak ere figura batzuk oparitu zotzan jaiotzarako eta bera ardura-tzen da normalean.

Andrea eta bixok bizi gara eta neu arduratzen naiz gehienetan. Arbola txiki bat eta Olentzeroren figura bat jartzen dogu. Gustatzen jaku Gabonetan zertxobait jartzea.

Bai, beti jarri izan dogu arbola edo jaiotza. Aurten, alaba txikia daukagunez, arbolarekin nahikoa izango da. Bai, badaukagu ilusioa Gabonak ospatzeko, egun bereziak dira.

Arbola eta Jesus Haurtxoa jartzen dogu. Alaba arduratzen da. Beharbada datorren astean jarriko dogu. Gabonak ez ditut gehiegi atsegin baina egun bereziak dira guztiondako.

Bai, jaiotza jartzen dogu. Nire seme-alabek jartzen dute eta hasi dira prestaketa lanetan dagoeneko. Jaiotza ez bada, arbola jarri izan dogu, Gabonei ukitu berezia ematearren.

**TXALOAK ETATXISTUAK**



**TXISTUAK PAPERA EDUKIONTZITIK KANPORA** Poligonoan bizi den emakumezko batek deitu du. Etxetik gertu ditu edukiontzia eta askotan, papera eta kartoia ontzitik kanpora egoten direla dio, batik bat, edukiontzia berehala betetzen delako. Ondorioz, inguru guztia zikin egoten da haren esanetan, eta hori ekiditeko edukiontzia sarrigiog husea eskatzen du. Baita auzokoei kontu handiagoa izateko ere. /M.B.

**ETABARRUAN...**

ASTEKO BERRIAK /5

KIROLAK /11

KULTURA /12

**Gazteak aztergai**

12 eta 17 urte bitarteko gazte eta nerabeen beharrik ezagutzeko azterketa bat ein berri du Udalak.

**Pilota partiduak**

Samaniegok eta Gutierrezek Gipuzkoako finalerako sailkatzeko aukera izango dute gaur.

**Bihar, ganbera kontzertua**

Zubillaga mezzosopranoak, Herro viola jotzaileak eta Mendiburu pinao jotzaileak egingo dute.

**ASTEKODATUA**

**766**

**HERRIAN DAGOEN GAZTE ETA NERABE KOPURUA**

Bergaran 12 eta 17 urte bitarteko 766 pertsona daude. Populazio osoaren %5,11 dira. Halaxe jasotzen du Udalak egin berri duen gazteen beharrik ezagutzeko azterketa batean.

**BESTEKEKESANA**

**“Guk kimika teorikoa egiten dugu hemen. Ez dugu probarik egiten. Zer kimiko mota garen galdetzen dit gure**

**aitak. Teoria egiten dugu, kimikan gertatzen diren prozesuak nola eta zergatik gertatzen diren azaltzen dugu. Probak beste batzuek egiten dituzte. Batzuetan, baina, esplikatu ezin dituzten gauzak aurkitzen dituzte laborategian, espektroa eta halakoak. Guk horiek interpretatzeko hainbat azterna ematen dizkiegu. Hau da, esan diezaikegu zein den daukaten polimeroen egitura molekularra eta horiei darian hainbat propietate, hain zuzen espektroak. Beraz, beraiek dituzten polimeroen arteko elkarrekintzak zein diren identifika ditzaten eta haietatik zein material bitxi sor daitekeen jakiteko gure lana oso baliagarria da. JESUS UGALDE / Euskadi Ikerketa saria 'Berrria'/03-12-03**

**BERAIEK DIÑO E/ Aitziber Azkondo**



*Tu turu turu turu!!*

Autoan, irratia entzuten nindoala, amona xarmangarri batek telefonoz deitu eta honakoa esan zuen: "beno!! albisteak ikusi eta entzun nuenean, izugarriko barreak bota nituen, eguna pozteko arrazoi bikaina izan zen. Eta horren inguruan hitz egiten zaudetela aprobetxatuz, beharrezkoa nuen telefonoz parte hartzea. (Alegia, Australian jokatu zen Espainia eta Australiako tenis txapelketako finalean, Espainiako oroimenez, tronpeta jotzaileak errepublikaren doina, Riegoa, jo zuen istorioaz ari zen amona).

Izan ere, ez dut soilik nire poztasuna adierazteko deitu, Australiako tronpeta-jotzaileak nire etxeko atearak zabal zabalik dituela esateko baita ere. Edozein egunetan datorrela, bazkaria eta behar dena emango diogu. Zoritxarrez Euskal Herriaren kontrako albiste txarrak bakarrik iristen zaizkigu eta honek festarako gogoia ere piztu dit. Eskerrik asko". Barru

barrutik hitz egiten zuela nabaritzen zen. Hari, beste hiruzpalau deik jarraitu zioten iritzi berdina azalduz.

Antolaketa akats bat izan zela pentsatzen duena oker dabil. Munduko beste muturrean ere gobernu espainiarraren jokabidearen kontrako iritzi zabalagoa ulertze- ra eraman zidan albiste hark. Politena, adierazteko erabili zuten modua. Hitzik esan gabe, asko adierazi zuten. Eta zer nolako iskanbila sortu. Defentsiban jartzen denak badaki ez dagoela bekatutik libre. Batzutan

hitzak soberan daude. Gero eta gehiago nabari da, gure gizartearen sentimenduak pil-pilean, oilo ipurdi eginda daudela, eta amona hura adibide argia izan da. Hala ere, eskatu gabe batzutan patuak sorpresa atseginak ekartzen dizkigu. Barre egiteko ez bada ere!

Bestalde, eta berriz ere tronpeta jotzailearengana itzuliz, badakizue Donostian izan zela Trinitate enparantzan emanaldia eskaintzen?

**“Munduko beste muturrean ere gobernu espainiarraren kontrako iritzi zabala dago”**

**Berrigara**

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33  
20570 BERGARA  
Tel.: 943 76 03 97  
Faxa: 943 76 29 77  
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA  
Edu Mendibil  
ERREDAKZIOA  
Monika Belastegi,  
Aintzane Irizar  
MAKETAZIOA  
Miren Almaraz

PUBLIZITATEA  
Mireia Larrahaga  
KOLABORATZAILAK  
Luis Mari Agirre  
Juan Martin Elexpuru  
Miguel Angel  
Elkorobereizbar

LEGE-GORDAILUA  
SS-50/91  
ISSN  
1130-6599  
TIRADA  
5.900 ale

**Goiena**  
Komunikazio Zerbitzuak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako Kultura saila



Gipuzkoako Foru Aldundia



Bergarako Udala



Antzuolako Udala



Elgetako Udala

**GUARDIAKOFARMAZIAK**

- EGUBAKOITZA, 12**  
ESTELLA. Matxiategi 5. .... 943 76 19 63
- ZAPATUA, 13**  
MOZOS. Iparragirre 2. .... 943 76 12 15
- DOMEKA, 14**  
MOZOS. Iparragirre 2. .... 943 76 12 15
- ASTEHEHENA, 15**  
CAMACHO. Oxirondo 4. .... 943 76 11 74
- MARTITZENA, 16**  
ZABALA. Barrenkalea 25. .... 943 76 16 87
- EGUATZENA, 17**  
GUALLAR. San Antonio 5. .... 943 76 11 05
- EGUENA, 18**  
ESTELLA. Matxiategi 5. .... 943 76 19 63

**TELEFONOJAKINGARRIAK**

- OSASUNA / LARRIALDIK**  
Anbulatorioa (txanda) ..... 943 03 54 00  
Bergarako Udaltzaingoa ..... 943 77 91 06  
Antzuolako Udaltzaingoa ..... 943 76 62 46  
Ertzaintza ..... 943 53 47 20  
Osasun etxea ..... 943 76 24 40  
Asepeyo ..... 943 76 16 43  
Pakea ..... 943 76 13 49  
Angiozarko medikua ..... 943 78 90 27  
Antzuolako medikua ..... 943 76 62 23  
Odol emaleak ..... 943 76 16 24  
Alkoholiko Anonimoak ..... 943 76 51 06
- GARRAIOAK**  
Taxiak ..... 943 76 19 50
- UDALA**  
Bergarako Udaletxea ..... 943 77 91 00  
Antzuolako Udaletxea ..... 943 76 62 46  
Udal Artxiboa ..... 943 77 91 32  
Igerilekuak ..... 943 76 20 51  
Kultura etxea ..... 943 77 91 58  
Liburutegia ..... 943 77 91 62  
Kiroldegia ..... 943 76 56 41  
Mizpirualde egoitza ..... 943 76 13 68
- BESTELAKOAK**  
Epaitegia ..... 943 76 14 92  
Erregistroa ..... 943 76 13 15  
Jardun ..... 943 76 36 61  
Idolaz ..... 943 76 65 08  
Erretiratuen etxea, Bergara ..... 943 76 21 40  
Antzuolako erretiratuen elk. .... 943 76 62 71  
Postetxea ..... 943 76 26 85  
Bedelkar ..... 943 76 04 68  
Akulu AEK ..... 943 76 05 18  
Udal Euskaltegia ..... 943 76 44 53  
Bergarako notariotza ..... 943 76 10 73

**MEZAK**

- |  |  |
|--|--|
| <b>San Pedro</b><br>Domekak:<br>09:30, 12:30.<br>Zapatuak eta lanegunak:<br>19:00.           | <b>Labegarieta</b><br>Domekak: 11:00.<br><b>San Lorentzo</b><br>Zapatuak: 20:00.<br><b>Angiozar</b><br>Domekak: 11:30.       |
| <b>Santa Marina</b><br>Domekak:<br>11:00, 13:00.<br>Zapatuak:<br>19:00.                      | <b>Moja Zaharrak</b><br>Lanegunak: 09:00.<br>Zapatuak: 11:00.<br><b>Mizpirualde</b><br>Lanegunak: 11:45.<br>Zapatuak: 17:30. |
| <b>Sierbak</b><br>Lanegunak: 19:30   | <b>Antzuola</b><br>Domekak:<br>09:00, 11:30.<br>Zapatuak eta lanegunak: 19:30.   |
| <b>Osintxu</b><br>Domekak: 12:30.<br>Zapatuak: 19:00.  | <b>Uzarraga</b><br>Domekak: 10:00.   |
| <b>Elosu</b><br>Domekak: 10:30.  | <b>Elgeta</b><br>Lanegunak: 09:00.<br>Zapatuak: 19:30.   |
| <b>Ubera</b><br>Domekak: 10:30.  | Domekak: 12:00.  |
| <b>San Juan</b><br>Domekak: 11:00.   |  |
| <b>Elorregi</b><br>Domekak: 10:30.   |  |
| <b>URTE-MEZAK</b><br><b>Santa Marina</b><br>Hileko bigarren domekan, 10:30ean eta 13:00etan. |  |
| <b>San Pedro</b><br>Hileko hirugarren domekan, 09:30ean eta 12:30ean.                        |  |

**OHARRAK**

**1982AN JAIOTAKOEN BAZKARIA ABENDUAREN 13AN**  
1982an jaiotako bergararrek bazkaria egingo dute zapatuan, abenduaren 13an, Boluko Eguzkitza jatetxean. Egunean bertan Pol-Polen elkartuko dira, 13:00etan.

**1985EAN JAIOTAKOEN BAZKARIA ABENDUAREN 24AN**  
1985ean jaiotako bazkaria abenduaren 24an. Eguna hurbildu ahala, bazkaria zein tokitan egingo duten zehaztuko dute.

**IKASTAROAK KZGUNEAN**  
KZGuneak herritar guztiendako informatika ikastaroak eskaintzen ditu. Besteak beste, Interneten nabigatzeko eta prestakuntzako ikastaroak antolatu dituzte. Argibideak Irizar jauregiko (Barrenkalea 33) lehen solairuan edo 943 76 73 24 telefono zenbakian.

**ARDO ETA CAVA DASTATZEA**  
Bergarako Emakume Kultur Elkarteak (BEKE) antolatuta, ardo eta cava dastatzea izango da martitzenean, abenduaren 16an, Artatse elkartearen, 18:30ean. Dastatzea Mikel Garaizabal somelierrak egingo du. Izenematea BEKEk Irizar jauregian duen bulegoan edo 943 76 07 95 zenbakian egin daiteke.

**BEDELKARREN ZOZKETA**  
Bedelkar herriko dendarien elkarteak 1.000 euroko erosketa bono bat eta 500 euroko beste lau bono zozketatuko ditu Gabonetan.

**JARDUNENAGENDA**

**ASTE BUKAERAKO AGENDA**  
Txapligu taldekoek antzerki ikastaroa izango dute zapatuan Arrizuriagan, 16:00etan. Domekan, berriz, Santo Tomas jaialdirako ekitaldiak prestatzen hasiko dira.

**URBANOENORDUTEGIA**

**San Lorentzo / San Juandik irteerak**  
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.  
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluez aurrean), Matxiategi (Mizpildik okindegia), Zurra-dero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

**Labegarieta / Olabarrenetik irteerak**  
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.  
GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Muger-tza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

**ORAINDELA 10URTEBERRIGARAN**

**Eguneko zentroaren berri eman zuen Udalak**

Erretiratuen egoitzan jartzekoa zen eguneko zentroaren berri eman zuten Udaleko ordezkariak 1993ko abenduan. Mendekotasun maila bat izan eta familiarekin bizi diren pertsona nagusiei zuzendutako zerbitzua da Bergarako Udalak eta Diputazioak abian jarritakoa.



**BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru**

“Ezteguak”



Ezteiak. Pluralean ia beti.  
—Len ezteguak iru egun irauten zeben.

**HAUGIROAI!**

<b>MINIMOA</b> Martitzena, 9	<b>1°C</b>
<b>MAXIMOA</b> Zapatua, 6	<b>14°C</b>
<b>ASTEKO EURIA (l/m<sup>2</sup>)</b>	<b>8,4 L</b>
	Max. Min. Euria
Eguaztena, 3	10°C 2°C 5,6 l/m <sup>2</sup>
Eguena, 4	11°C 2°C 0,7 l/m <sup>2</sup>
Egubakoitza, 5	13°C 5°C - l/m <sup>2</sup>
Zapatua, 6	14°C 6°C 2,1 l/m <sup>2</sup>
Domeka, 7	14°C 4°C - l/m <sup>2</sup>
Astelehena, 8	14°C 3°C - l/m <sup>2</sup>
Martitzena, 9	12°C 1°C - l/m <sup>2</sup>

San Juan auzoan jasotako datuak

**ASTEKOFILMAK**

**‘DÍAS DE FÚTBOL’**  
ZUZENDARIA: DAVID SERRANO. AKTORE-  
AK: ERNESTO ALTERIO, ALBERTO SAN JUAN,  
NATALIA VERBEKE.

**HARIA.** *El otro lado de la cama* filma egin zuen taldeak beste komedia dibertigarri bat egin du. Antonio kartzelatik atera berria da. Bere lagunei zerbait irabaz dezaketela sinetsarazi nahi die, eta futbolearen jokatzeko hasiko dira.

**TOKIA ETA ORDUA.** Egubakoitzean, 22:30ean; zapatuan, 19:30ean eta 22:30ean; domekan, 19:30ean eta 22:15ean; astelehenean, 19:30ean.

PUNTUAZIOA: ●●●●●

**‘BETIZU IZAR ARTEAN’**

ZUZENDARIA: EGOITZ RODRIGUEZ OLEA.

**HARIA.** Euskal Herrian egindako marrazki bizidunetako filma, batez ere gaztetxoei zuzenduta. Uztarroko galaxiako ikuskizun areto orbital erraldoi bat da. Han, galaxiako musika lehiaketa garrantzitsuena egiten da urtero, eta betizuek bertan joko dute...

**TOKIA ETA ORDUA.** Zapatuan, 17:00etan; domekan, 17:00etan; astelehenean, 17:00etan.

PUNTUAZIOA: ●●●●●

**‘EN LA CIUDAD’**


ZUZENDARIA: CESC GAY. MUSIKA: MONICA LOPEZ, EDUARD FERNANDEZ, MARIA PUJALTE, LEONOR WATLING.

**HARIA.** Saririk ez eskuratu arren, Donostiako Zinemaldian harre-beroa jaso zuen Cesc Gayk (*Krampack*) zuzendutako film honek. Bartzelonan kokatutako istorio honetan hainbat bikoteren gaineko gorabeherak azaltzen zaizkigu ikuspuntu gazi-gozoa erabilita.

**TOKIA ETA ORDUA.** Zinekluba. Egunean, hilaren 18an, 20:00etan.

PUNTUAZIOA: ●●●●●

**BERGARA**  
Margoak



Kalitatea eta zerbitzua.

Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA  
Tel.: 943 76 97 31 Faxa: 943 76 97 32. bergara.margoak@terra.es

**GAZTEAK/** 12 eta 17 urte arteko gazteen beharrei erantzuteko programa hezitzaile bat bultzatzea du helburu, ingurune irekian

# Gazte eta nerabeen errealitatea ezagutzeko azterketa egin du Udalak

MONIKA BELASTEGI

Udalak 12 eta 17 urte bitarteko gazte eta nerabeen errealitatea ezagutzeko azterketa egin du. Gazte horien beharrik egin diren ezagutu nahi izan dituzte azterketa honekin, gero, behar horiek asetzeko. Horretarako, programa berezi bat zehaztuko dute.

Azterketak 12 urtetik hasi eta 17 urtera bitarteko neska-mutikoak izan ditu kontuan. Herriko populazioaren %5,11 osatzen du adin tarte horrek: Bergarak dituen 14.965 biztanletatik, 766 adin tarte horretan daude.

Hiru pertsonak jardun dute azterketa egiten, Oihana Palacios, Kepa Eguren eta Miren Amorrak, eta urtebete inguru eman dute lana egiten.

Udaleko Gizarte Ongizate Sailatik abiatu zen horrelako azterketa baten beharra. Azaldu duteenez, tarte horretako neska-mutikoek gizarteratze prozesuaren eragileetako bat da kalea, eta horra ez da ez familia ezta ikas-erria hiltzen. Bestalde, nabaria da hainbat hutsune daudela esparru horretan. Hori horrela, euren beharrik, baliabideak eta zerbitzuak adostuko dituen esku-hartze programa bat ezartzeko beharra sumatzen zuten Udalean; ingurune irekian gauzatuko dituztekean programa bat. Azterketa egin eta gero, halako programa baten beharra benetakoa dela ikusi dute.

Hori horrela, Udal iturriekin egin dute programa hori abian jaritzeko bidea aztertzen dihardutela, eta ikusteko dago 2004ko aurrekontuan sartzen duten.

## KALEA, HEZIKETA-GUNE

Programa horrek Udala izaera izango luke, eta besteak beste, hainbat zeregina: gazte eta nerabeen eta Udalaren artean ez dago zuzeneko harremanik; hori dela eta, euren eskaerak eta beharrik aztertu eta zubi lana egingo luke programak. Horrekin batera, azterketeen, ikastetxeen eta Uda-



Jardun elkarteak, esaterako, adin tarte horretako neska-mutikoendako astebururako aisialdi programa dauka.

laren arteko koordinazioa eta elkarlana bultzatuko luke, betiere, gazteen beharrei erantzuteko helburuarekin. Bestetik, gazteen gizarteratze prozesuan kalea eragile nagusia izanik, esparru hori heziketa-gune bezala erabiliko luke programak, eta prebentzioaren gaia sakondu eta sendotzeko ere balioko luke.

Erabilitako metodologiari dagokionez, parte-hartzailea izan da, hau da, elkarrizketak, eztabaida taldeak eta behaketak egin dituzte. Batetik, gazte eta nerabeek zuzenean hartu dute parte esandako ekintza horietan eta bestetik, haiekin zuzeneko lana edo harremana duten agenteei; hala nola, herriko elkarteek -Jardun eta ASKE, esaterako-, ikastetxeek eta Udaleko sailek.

## ZER ESKAINTZEN DIE BERGARAK GAZTE ETA NERABEEI?

Azterketan jasotzen denez, Bergarak gazte eta nerabeei eskaintzeko dituen baliabideak nahiko urriak dira, aisialdiari dagokionez; halaxe diote gazteek.

Aisialdiaren kasuan hutsune handiak dituela jasotzen du azterketak, bai azpiegitura aldetik, baita eskaintza aldetik ere. Batetik, aisialdi talde gutxi dago herrian. Bestetik, kultura eskaintza badagoen arren, ez da gazteen beharretara egokitutako eskaintza, eta hortik, Udalak antolatzen dituen kultura ekitaldietan adin tarte horretako neska-mutikoek izaten duten parte-hartze txikia.

Kirol arloa ere jasotzen du azterketak, eta hor ere hainbat hutsune daudela diote gazteek: instalakuntzak sakabanatuta daude eta igerileku zerbitzua eskasa da.

## AISIALDIA KONTSUMOAREN SINONIMO

Gazte eta nerabeek aisialdia betetzeko egiten dituzten ekintza gehienak kontsumoarekin lotuta daudela dio azterketak. Kanean denbora pasa ematen dute denbora asko, litxarreriak jaten, ziber gunean jolasean... Azterketaren arabera, hezitzaileak ez diren jardunetan. Helburua horri buelta ematea da.

## Zer pentsatzen dute gazte eta nerabeek?

### BEHARRAK

Koadrilendako lokalak, gazte lekua, musika taldeendako lokalak, skate parkea, igerilekuak, jolas aretoa, arkupeak, bidegorria, bideoteka, zinema berriak.

### ELGOIBAR

Oso modan dago, eta hara joateko garraio publikoak gabeziak ditu.

### GUSTUKO LEKUAK

Adinaren arabera dago. 12-13 urte: Seminarioa, parkea eta kalea; 14-16 urte: Aranzadi atzealdea, institutua, Ibaiondo eta ziber kafea; 16-17 urte: tabernak eta gaztetxea.

### KOADRILAK

Osatzeko orduan, hasieran ikastetxeak eragina du. Adinean aurrera doazela zaletasunen arabera ere osatzen dira.

### EUSKARA

Gazteek euskararako joera

handiagoa dute; zaharragoek gaztelaniz gehiago egiten dute.

### ITXURA

Garrantzia handia ematen diote itxurari bai gazteek baita nerabeek ere.

### DROGAK

Gazte gehienek entzunez besterik ez bada ere, droga gehienak ezagutzen dituzte. Droga bigunen eta gogorren artean bereizketa handia egiten dute, bigunak gizarteratuta ikusten dituztelako. 14tik gora hasten da kontsumoa ematen: haxixa, tabakoa eta alkohola. Gainerako sustantziekiko geroz eta gertutasun handiagoa dago.

### PREBENTZIOA

Txapa bat da, beti gai berak lantzen direlako. Baina beharrezkoa da eta batzuentzat baliagarria izan daiteke. Ezjakintasuna nabarmena da hainbat gairen gainean, hiesa, batik bat.

### TEKNOLOGIA BERRIAK

Sakelako telefonoa, Internet eta PlayStation gehienek dute eta asko erabiltzen dituzte.

### AISIALDIA

Kontsumoarekin erlazionatuta dago; diru gabe aisialdi eskaintza baldintzatuta dago.

### GAZTE INFORMAZIO BULEGOA

Orokorrean ez dute ezagutzen.

### EKIPAMENDUAK

Urriak dira eta asko ez daude egoera oso onean: liburutegia txikia, polikiroldegia urruti, zinea garestia eta zahartuta. Tabernak edo kalea izan ezik ez dute ezer.

### UDALA

Beharrik eta eskaerak ez dira Udalera heltzen eta lan hori egingo lukeen zerbitzua behar da.

Mujika  
gozotegia



Bizkotxoak  
Erreilenoak  
Tostoiak

Artekalea 3 BERGARA  
943 76 10 34



ARRI

Industri  
hornidura

Zubiaurre, 30  
BERGARA  
Tel. eta faxa:  
943 76 19 04.  
Sakelakoa:  
656 78 64 84.

etxalar

kafetegia  
kruasantegia

Boni Laskurain 4  
BERGARA  
943 76 50 68

ARANE  
KRISTALDEGIA

Artekalea, 18-behea.  
BERGARA  
Tel. 943 76 74 09  
670 483 903

Sugoi

ERLOJUAK,  
ARTIKULU  
ELEKTRONIKOAK,  
KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 behea  
943 76 59 54 BERGARA



Udaleko Euskara zerbitzuak antolatu ditu ikastarook.

ARTXIBOA

**EUSKARA/** Jolas eta kantu ikastaroa eta ipuin kontaketa ikastaroa antolatu dute

## Gurasoek umeein jolasteko ikastaroa antolatu du Udala

MONIKA BELASTEGI

Guraso direnei zuzendutako ikastaroak antolatu ditu Udaleko Euskara zerbitzuak. Bi ikastaro dira: bata, **Umeein jolas egiteko ikastaroa, eta bestea, Gehixago eta hobeto: gurasoendako ikastaroa.** Izena emateko epea zabalik da, dagoeneko.

Umeein jolas egiteko ikastaroaren baitan bi ikastaro emango dituzte: alde batetik, **Ume jolas eta kantak** izenekoa, eta beste aldeetik, **Ipuin kontaketa ikastaroa.** Bi ikastaroen helburua da gurasoei beren seme-alabekin euskaraz jolasteko baliabideak eskaintzea

eta baliabide horien bitartez, umeen emozio heziketa bultzatzea eta umeen eta familiako arteko afektibitatezko loturak indartzea, hain zuzen ere.

**Ume jolas eta kantak ikastaroak** ordu eta erdiko zortzi saio izango ditu (euskaraz zein gaztelaniaz). **Ipuin kontaketa ikastaroari** dagokionez, berriz, ordu eta erdiko bost saio izango dira (euskaraz).

Euskara zerbitzuak antolatutako ikastarootan izena emateko azken eguna abenduaren 15a da, eta ikastarook otsaileko bigarren astean hasiko dira. Izena eman daiteke ikastetxeetako idazkaritzan edo Udaleko Euskara zerbitzuan.

### IPUIN KONTAKETA IKASTAROA

**Gehixago eta hobeto: gurasoendako ikastaroaren** kasuan, hauek dira helburuak: gurasoek seme-alaben hizkuntza kalitatean duten eraginaz jabetzea; gurasoei euren hizkuntza-akatsak zuzentzeko lagungarriak eskaintzea, eta gurasoei umeen akatsak zuzentzeko lagungarriak eskaintzea.

Ikastaroa euskaraz izango da, eta ordu eta erdiko bost saio izango dira. Ordutegia taldearen arabera zehaztuko da. Izena emateko azken eguna abenduaren 15a izango da eta ikastaroa urtarrilaren bigarren astean hasiko da. Izena eman daiteke ikastetxeetan, kultura etxean edo Euskara zerbitzuan.

## Egunkaria dela-eta Udalak izandako jarrera salatu dute langileek

M.B.

Udaleko Langileen batzordeak salatu egin du Gobernu batzordeak Egunkariaren alde egindako ordu beteko lan uztearen gainean hartutako jarrera. Euskarari laguntzeko aukera aparta galdu zela uste dute.


Euskaldunon Egunkariaren alde egindako ordu beteko lanuztearekin dago lotuta enpresa batzordearen haserrea. Egunkariaren itxiera salatzeke martxoaren 13an ordubeteko lanuztea egitea erabaki zuen batzordeak, eta lanuzteari zegokion soldataren des-

kontua Egunerori ematea. Hala eta guztiz ere, Gobernu batzordeak eskaera hori ez onartzea erabaki zuen azaroaren 3an, lana ez egiteagatik eta lan uzteari dago-kion kopurua Udala ordaintzea zuzena ez delako.

### ONARTEZINA IRUDITZEN ZAIE EZEZKOA EMATEKO ARRAZOA

Erabaki horren aurrean, hauxe dio langile batzordeak: batetik, onartezina irizten diote halako gai bat zazpi hilabetez aztertzeke mahai gainean izateari; bestetik, onartezina iruditzen zaie ezezkkoa erabakitzeke Gobernu batzordeak emandako arrazoa; hiru-

garrenik, langile batzordeak dio badakiela sarritan izan direla Udalak deitutako lanuzteak eta kasu horietan ez dela aplikatu deskonturik. Horren aurrean batzordeak ateratzen duen ondorioa da, nahiz eta Udalaren obligazioa izan kopurua deskontatzea kasu batzuetan ez duela hori betetzen eta lan eginda bezala ordaintzen duela. Azkenik, batzordeak uste du udalari eskatutakoa egingarria zela borondatea izanez gero, eta penagarria iruditzen zaie hartutako erabakia, haien ustez aukera ona galdu delako euskarari eta euskarazko egunkari berri baten proiektuari bultzada emateko.



### Gaur, egubakoitza, piztuko dituzte argiak

Gaur, egubakoitza, piztuko dituzte Gabonetako argiak kaleetan. Herriko sarreretan, auzoetan eta erdigunean jarri dituzte argiak. Urtarrilaren 6ra arte egongo dira piztuta, eta aurrekontua 19.200 euro ingurukoa da.

Gabonetako argiekin batera, eta urtero bezala, Jaiotza ere ikusgai egongo da gaurtik Gabonak bukatu bitartean udal-tereko sarreran.

## LABUR

### Datorren egubakoitzean emango dituzte jakitera erakusleho lehiaketako irabazleak

Datorren egubakoitzean, hilaren 19an, emango ditu Udalak jakitera erakusleho lehiaketako irabazleen izenak. Hiru sari emango dituzte: 250 eurotako hiru sari. Bestalde, epaimahaiko kideek sariak ematerakoan, kontuan hartuko dute publizitate mezuaren imajinarioa, originaltasuna eta eraginkortasuna, kalitatearekin batera. Bestetik, erakuslehoan establezimenduan saltzen diren ohiko artikuluak agertu beharko dira, eta Udalak erregutzen du apaingarri gisa gorosti, goroldio, erratz eta izei naturalik ez erabiltzea.

### Bergarako Herri Mugimenduak hainbat ekitaldi antolatu ditu datorren asterako

Eguenean hasi eta domekara bitarteko ekitaldiak antolatu dituzte. Eguenean, hilaren 18an, hitzaldia egongo da gaztetxean, 19:30ean. Gaia: **Euskaldunen hizkuntza eskubideen zapalketa epaitegian.** Hilaren 19an, La Patro taldeak **Lecciones de orgasmo** antzezlan egingo du gaztetxean, 22:00etan. Hilaren 20an, bazkaria egongo da gaztetxean. Txartelak honako lekuetan eros daitezke: Pol-Polen, Arranon Kortazarren eta gaztetxean. 22:30ean kontzertua egongo da, eta hilaren 21ean, kalejira, 19:00etan, San Martin plazatik abiatuta. Horren ondoren parodia egingo dute.

### Ardo eta cava dastatzea eta Gabonetako sukaldaritza ikastaroa antolatu ditu BEKEK


Ardo eta cava dastatzea abenduaren 16an izango da, Artatse elkartean, 18:30etan, eta sarrerak 10 euro balio ditu. Dastatzea Mikel Garaizabal Elorrioko enologo eta **somelierak** egingo du. Izena ematea BEKEK Irizar jauregian duen bulegoan egin daiteke, martitzen eta eguenean goizetan, eta eguazten arratsaldetan. Izena telefonoz emateko 943 76 07 95 telefonora dei daiteke.

Gabonetako sukaldaritza ikastaroa hilaren 18an izango da, 18:30ean, Artatse elkartean. Zelai-Zabal jatetxeko Alberto Elorzak egingo du. Prezioa 10 eurotako da.

### Musika Eskolak batzar orokorra egingo du datorren eguaztenean, abenduaren 17an

Musika Eskolatik jakitera eman dutenez, batzar orokorra egingo dute datorren eguaztenean, hilaren 17an, Musika Eskolan. Batzar-erako lehenengo deialdia 19:00etan da eta bigarrena, berriz, 19:30ean.

Deutsche Post  World Net  
MAIL EXPRESS LOGISTICS FINANCE



# Indartsuago.

**Mundu-mailan estandar berri bat sortu da Espres-zerbitzuei, merkantzien garraioari eta logistikari dagokienez.**

Guipuzcoana Euro Express, paketeen alorrean Europako buru dena, DHL Worldwide Express, aireko garraio espresetan munduko buru dena eta Danzas, aireko eta itsasoko zamen alorrean munduko buru dena DHL markapean bildu dira are hobe den osoko zerbitzua eskaintzeko. Orain, eskaintza, zerbitzu eta aukera gehiago jartzen ditugu zure eskura munduko 220 herrialde baino gehiagotan. Zure beharrak edozein direla ere, horiei erantzuna emateko prest gaude. Jar zaituzte gurekin harremanetan eta DHLren indar osoa izango duzu zure negozioaren zerbitzura.

**DHL Express Bergara**  
San Juan Erreka 33  
20570 - Bergara  
Tel.: 943 763 642  
Faxa: 943 765 425

MUNDUA MUGITZEN DUGU 



## MUSIKA ESKOLAKO IKASLEEN EMANALDIA

**U**dal Pilotalekua jendez gainezka zegoela, Musika Eskolako ikasleek emanaldia egin zuten martitzenean. Tere Arantzia eta John Prieto aritu ziren aurkezle lanetan, eta, programaren berri emateaz gain, talde bakoitzeko ikasle berriak aurkeztu zituzten jendaurrean. Emanaldian, ikasleek irakasleen laguntza ere izan zuten. Guztira, 200 bat ikaslek hartu zuten parte: Suzuki metodoko biolin ikasleak, haurren abesbatza, akordeoi orkestra, gazteen banda eta orkestra sinfonikoan dabiltzanak, hain zuzen ere. Azken asteotan eskolan landutako hainbat pieza jo zituzten. Musika Eskolako irakasleek, berriz, Michal Carros-en *A Christmas dance party* eskaini zuten. Ikasle, irakasle zein ikusleek erabat gozatu zuten kontzertuarekin. *Chapeau!!!*



## KALABAZA ERRALDOIAK

**A**spaldiko ohiturari eutsiz, Bodegon Hernandezek lehiaketa bitxia antolatu du. Bi kalabaza handi jarri dituzte erakusgai eta bi kalabaza horien pisua asmatzen duenak Gabon saskia eskuratuko du. Hondarribiatik ekarri dituzte bi kalabazok, eta pisutsuak direla frogatu du batek baino gehiagok. Aurtengoa lehiaketaren 20. ekitaldia da. Orain arte emakumeak nagusi izan direla esan digu Jesus Hernandezek. Joan zen urtean, esaterako, Felisa Gabilondok eraman zuen saria. Astelehenean jakingo dugu zein den aurtengo irabazlea... Argazkian Jesus ageri da, bi kalabazon ondoen.



## ARANZADI IKASTOLAN JAI EGUNA

**J**oan zen eguaztenean, abenduaren 3an, San Frantzisko Xabier eguna ospatu zuten Aranzadi ikastolan. Nafarroako patroia ikastolen zaindaria ere bada, eta hori ospatzeko, hainbat ekitaldi izan zituzten ikasleek. Goizean Olinpiada mundialak egin zituzten: lasterketak, txingak, kaskara-jokoa eta beste hainbat joko. Arratsaldean, berriz, txokolate-jana eta jolasak izan zituzten. Euskararen Nazioarteko Eguna ere ospatzen zenez, pregoia irakurri eta ikastola apaindu eta banderatzoz bete zuten.

# Dixula

**BOKATAK  
DAUZKAGU**

Barrenkalea 32  
BERGARA  
Tf. 943 76 44 95



943 76 20 61  
BERGARA

## BEHEKO TABERNA

Menestra  
eta untxia dira  
gure berezitasunak

ANGIOZAR  
Tf.: 943 76 55 74

# AZPEITXI

*Jatetxea*

Aranerreka 13 behe. Bergara  
943 76 55 00



INGAINARITIRAKA



**Amaia Epelde**

SPINNING ETA EUSKARA IRAKASLEA

Udaleko Kirol Zerbitzuak antolatzen duen spinning ikastaroko monitoretako bat da Amaia. Psikologia ikasketak egin zituen eta Jardun elkartean dabil, euskara errefortzuetako ikasleekin lanean. Horrez gain, mendizale amorratua dela dio Amaiak.

- Zeinendako da aproposa spinninga egitea?**  
Sasoian egon edo pisua galdu nahi dutenendako, adibidez, aerobika eta txirrindularitza tartekatzen dira-eta.
- Kirola, aire librean ala leku itxietan nahiago?**  
Aire librean, baina aerobika, stepa eta spinninga, esaterako, leku itxietan egin behar dira derrigorrez...
- Kirolik gustukoena?**  
Mendian ibiltzea izugarri gustatzen zait.
- Inguruko mendi bat?**  
Orizol, Anboto ondoan dagoena. Eta Pirinioetan, Vignemale. Eta zein daukazu egiteko?
- Asko. Alpeetan eski zeharkaldia egin nahi nuke etorkizunean.**
- Miresten duzun kirolari bat?**  
Inurrategi anaiak.
- Txikitan zer izan nahi zenuen?**  
Sekula ez dut garbi izan zer izan nahi nuen...
- Aisialdian zer egitea gustatzen zaizu?**  
Mendian buelta bat eman, zinera joan, lagunekin irten...
- Liburu bat/Film bat/Musika talde bat edo kantari bat?**  
*El nombre de la rosa* (Eco)/ *El hijo de la novia*/ PJ Harvey, Neil Young...
- Gustuko jantzi bat? Kolore bat?**  
Praka bakeroak, adibidez. Kolorea, berdea.
- Bizitzan zeri ematen diozu lehenatasuna?**  
Nire buruarekin gustura sentitzeari.
- Janari eta edari bana?**  
Txuleta on bat eta sagardoa.
- Durangoko azokan izan zara?**  
Bai, zapatu goizean. Gustura ibiltzeko jende larregi zebilen...
- Zer errepikatzen diezu euskara ikasleei behin eta berriz?**  
Zenbat eta hizkuntza gehiago jakin, beraiendako hobe izango dela eta euskara tartean dela.
- Gabonak atsegin dituzu?**  
Ez bereziki, baina tira, oporrak dauzkagu-eta...
- Zer eskatuko diozu Olentzerori?**  
Behar ditudan gauzak, mendirako eta eskiatzeko materiala.

EDU MENDIBIL

**NIREBIDAIAHURA/ Nekane Gabilondo**

TUNISIA / 2003ko urrian

**A**stebeterako joan ginen Tunisiara Mikel eta biok. Udan oporrik ez nuen izan, eta eguzkiaz gozatzeko gertuko leku epel batera joan nahi genuen. Tunisia leku aproposa iruditu zitzaigun, udazkenean praka motzetan ibiltzeko moduko eguraldia dagoelako han. Ez da gutxi.

Beste hogeita bost bat lagunekin egin genuen bidaia. Autobusean kilometro ugari egin genituen, punta batetik bestera ibili ginen-eta.

Hamammet-en hasi genuen bidaia. Bidean herriak ikusiz, Kaioruan-era iritsi ginen. Han islameko jarraitzaileendako meskita garrantzitsuenetakoa dago, nahiz eta musulmanak ez garenok barrura sartzerik ez izan. Bitxikeria moduan, gu egondako sasoiari Ramadana ospatzen zuten musulmanek, eta horrek ere eragina izan zuen bidaian, gidek eta txoferrek ezin zutelako ezer jan edo edan egun-sentitit iluntzera arte. Han eguzkia 05:30ak aldera irteten zela kontuan izanik, goizean goizetik ibiltzen ginen eta 17:30ak inguruan iluntzen zuen. Ordu horretan, errezatzen hasten ziren musulmanak eta etxafuego bat jaurti ondoren, meskitetatik ogi moduko bat jaten ateratzen ziren, eguneko *penitentzia* amaituz.

Neftaraino heldu eta hurrengo egunean mendiko oasiak ikustera joan ginen. Kontraste handi-




*“Gu egondako sasoiari Ramadana ospatzen zuten musulmanek, eta horrek ere eragina izan zuen bidaian”*

*“Erromatarren arrasto ugari dago Tunisian; El Jem-en eta Cartagon, adibidez”*

Sidi Bou Said bisitatu genuen iparraldeko kostaldean. Zuria eta urdina nagusi dira hango etxeetan, mediterranean herri tipikoetan bezala.

EDU MENDIBIL



Nekane eta Mikel, Mides eta Chebika inguruan. Mendiko oasiak daude han.

**Dietetika eta Nutrizio Kontsulta**

- Osasun arazoak
- Balorazio nutrizionala
- Dieta pertsonalizatuak
- Etkez-etxeko zerbitzua
- Ikastaroak

(...) mireia alberdi  
DIETISTA-NUTRIZIONISTA  
(t) 943 76 60 45  
(s) 646 43 34 58  
(e) mireialber@euskalnet.net

Olaran etxea, herriko plaza 3  
20577 ANTZUOLA

**Aldoka Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi  
BERGARA

**IRURAK MARGOAK**  
DISEINUAK, S.L.

Era guztietako lanak  
Moketa eta sintasola  
Iztuku esponjatua

Paper pintatuak  
Harea zorrotada  
Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara  
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984  
Faxa: 943 76 09 32

MENDIA

# Mikel Uribesalgok eta Unai Beitiak hainbat pareta eskalatu dituzte Yosemite

Udazkenean hilabete bat eman zuten Yosemite (Kalifornia), eta, besteak beste, Gran Capitan ezaguna egin zuten

EDU MENDIBIL

**Mikel Uribesalگو eta Unai Beitia eskalatzailerik bergarrek Yosemite, Kalifornian, hilabete eman zuten udazkenean. Besteak beste, Gran Capitan ezaguna eskalatu zuten. Beraiek esandako moduan, mundu osoko eskalatzailerik dagoenak gunea da hura.**

Irailaren 16tik urriaren 16ra bitartean Kaliforniako Yosemite Parke Naturalera joan ziren Unai eta Mikel. Biek ere aspalditik zuten hara joateko gogo: "Eskalatzeko ibiltzen garen guztiondako erreferentzia nagusietako bat da toki hura. Eskalatzeko pareta ezagun asko dago han, Gran Capitan mitikoa tartean, eta uztailean-edo hasi ginen Yosemiteara joateko ideia aztertzen. Bergarako Udalaren laguntza izan dugu, eta esperientzia ahaztezina izan da". Beraiek joandako sasoi mundu osoko eskalatzailerik zeuden Yosemite, 200 lagun inguru. Camp Four delako kanpina dagoeneko aski ezaguna da eskaladan dabilzanendako.

Kaliforniara joan aurretik nahiko ondo ezagutzen zituzten Yosemiteko paretak, liburuei, krokisei eta bestelako materialari esker. Hala ere, han eskalatzeko guztiz ezberdina dela dio Unaik: "Paretan zaudela, pitzadura batek bestera pasatzeko penduluak egin beharra daukazu han, eta hori egiteke geneukan. 600 metroko altueran, paretan korrika egin eta beste pitzadurara pasatzeko salto egin behar duzu. Zenbaitetan inprobisatzea tokatu zaigu, eta gauza berriak ikasteko balio izan digu horrek".

Esan dugun moduan, hilabete osoa eskalatzeko eman dute, eta, Gran Capitan ezagunaz gain, beste pareta hauek ere egin dituzte: Washington Column (The Prow izeneko bidetik), Lenin Tower (West face bidetik), The Cathedral (East butres) eta Half Dome (Regular bide ospetsutik). Azken hau ez zuten amaitzerik izan Mikelek susto bat izan zuelako: "Pareta erdian ginela, zortzi bat metroko jausi bat izan nuen eta kolpe handia hartu nuen paretaren kontra. Behera egin behar izan genuen. Nahiko lan izan genuen jaisten, goraino joaten baino gehiago ziurrenik". 800 metroko pareta da Half Dome. Zorionez, Mikel laster errekupe ratu zen eta eskalatzeko jarraitu ahal izan zuten.

## ERLAITZETAN LO, 800 METRORA

Egindako pareta guztietatik biak bat datoz Gran Capitan nabarmentzeko orduan: "The Nose bidetik egin genuen: eskaladan



Unai Beitia Lost Arrow izeneko bidean tirolina ikusgarria egiten. Yosemiteko paisaiarekin erabat gozatu dute Uribesalgok eta Beitia.



Mikel Uribesalگو Gran Capitanerako bidean. Munduko paretarik ezagunenetakoa da Gran Capitan, 1.000 m ingurukoa.

biderik zaharrenetakoa eta ezagunenetakoa izango da ziurrenik. 1.000 metroko pareta da, ikusgarria benetan. Gailurra 2.500 metrora dago". Lau egun eta hiru gau behar izan zituzten Gran Capitan igotzeko: "800 metroko altueran dagoen erlaitz baten lo

egitea gauza ederra da. Izugarri gozatu genuen. Gainera, ilargi bete tokatu zitzaigun, eta, ilargia agertzean, norbaitek parean frontala piztuta balu bezala zen. Ematen zuen ilargia esku-eskura geneukala. Bestalde, itsaspen oneko granitoko paretak dira,

eskalatzeko oso aproposak. Big Wall izeneko eskalada mota egin dugu Yosemite, eta liluratuta bueltatu gara handik. Lost Arrow izeneko bidea, esaterako, tekniki nahiko erraza da eta 60-80 metro inguruko tirolina egiteko aukera dago. Han goitik dagoen

*"Gran Capitan The Nose bidetik egin genuen, eskaladako biderik ezagunenetakoa"*

bista sekulakoa da".

Lo egiteko zakuak, arropa, janaria (latak nagusiki) eta ura kontuan izanik, eskalada bakoitzean 45 bat kiloko petatea igo behar izaten zuten. Bestalde, udazkena ei da Yosemite eskalatzeko sasoirik onenetakoa, eta eguraldi aproposa izan dute. Horrekin ere zorrea izan dutela diote Mikelek eta Unaik.

## BUELTAN MATERIALA GALDU

Kaliforniatik bueltan jaso zuten albiste txar bakarra: San Franziskotik Frankfurterako hegaldian maleta bat galdu zen. Eskaladako material gehiena zeukaten maleta hartan eta Lufthansa konpainiak oraindik ez du maleta hori aurkitu.

Dena den, aspaldiko ametsa bete dutela diote. Txirrindulariendako benetako proba Tourra bada, eskalatzailerik Yosemiteara joatearekin egiten dute amets. Gran Capitan mendean hartzea ez dago edonoren esku.

# Samaniego eta Gutierrez Gipuzkoako finalerako sailka daitezke gaur

...reko egubakoitzean Urretxun ondoren (20-22), Edu Samaniego eta Igor Gutierrezek Gipuzkoako klubaren arteko txapelketako finalerako txartela lor dezakete gaur, baldin eta Añorbeko bikoteari irabazten badiotzen. Ligaxkan jokatuak hiru partidetatik bakarrik galdu du bikoitza. Bergararrak. Gaur, beraz, beren eskü izango dute abenduaren 19ko finalerako sailkatzea. Gutierrez eta Samaniego txapelketa bikaina egiten ari dira, eta ezin ahaztu gaixorik dagoen Ander Muguruzak egindakoaren. Haren lekua bete du Edu Samaniegok azken partiduetan.



Gutierrezek eta Samaniegok partidu erabakigarria jokatu dute gaur Bergaran.

**PARTIDU GAURKO JAIALDIAN**  
 ...ior mailako partidu horren artean, ondoko partiduak jokatu dira gaur Udal Pilotalekuan, ...etan hasita: Bergara-Sorabe (lehen mailako kadeteak), Bergara-San Esteban (bigarren mailako gazteak) eta Bergara-Berga (bigarren mailako senioak).  
 Domekan, berriz, Gabon sari-final-laurdenak izango dira Udal Pilotalekuan, 10:00etan.

## ESKUBALOIA

### Bost eskubaloi partidu jokatu dira aste bukaeran Labegarrietako Kiroldegian

Bihar, zapatua, ondoko eskubaloi partiduak izango dira kiroldegian: Bergara-Urrietako (kadete mailako neskek, 12:15), Bergara-Donibane (kadete mailako mutilak, 16:15) eta Bergara-Urrietako (gazteak, 18:00). Domekan, berriz, infantil eta kadete mailako neskek Ereintzaren aurka jokatu dute eguerdian, 11:45ean.

## SASKIBALOIA

### Bergara-Santo Tomas kadete mailako nesken partidua zapatuan Labegarrietan

Kadete mailako nesken saskibaloi taldeak San Tomas hartuko du bihar, zapatua, kiroldegian, 16:00etan. Bestalde, Araneta kadete mailako mutilen taldea finalerdia jokatzeko sailkatu da. Herenegun, eguaztena, Easoren aurkako lehenbiziko partidua jokatu zuen.

## LABEGARAIETAKO FUTBITO TXAPELKETA

### ASTE BUKAERAKO PARTIDUAK

<b>ZAPATUAN, KANPOAN</b>	19:00: Agirrebeña-Fit automocion. C. Nost.
09:30: Pirulotarrak-Belengua. Teatekh	20:00: Canalejas-Cosa Nostra. Agirrebeña
10:30: Teatekh-PDS. Dedo Paf.	<b>DOMEKAN, KANPOAN</b>
11:30: De Resaka-Dedo Pafarru. PDS	09:30: Txipiron-Mongatxurak. Errotagain
<b>DOMEKAN, BARRUAN</b>	10:30: Errotagain-Etengabe. Txipiron
16:00: Torrekoa-SDTNT. A Ze Flaxa	11:30: Belengua-Etengabe. Bar Bedarreta
17:00: Ganbara-A Ze Flaxa. Argandolas	12:30: Bar Bedarreta-Artusamak. Etengabe
18:00: Irubide-Argandolas. Fit automocion	

# Bergarak 1-0 irabazi Agorrosinen Añon Mendiri

...erente mailako Bergara futbol taldeak garrantzi handiko puntu lortu zituen zapatuan Agorrosinen, Añon Mendiren derbian. Partidua bukaeraz zegoela, 88. minutuan, penaltia baidagarri bati esker lortu zuen Bergarak Añon mendirako hartzea: hain zuzen ere, defentsa batek Josu Zubizarri egindako penaltia adieraztu zuen epaileak, eta Unai Aranek ez zuen hutsik egin. Juanina Garai mahoneroen erantzailaren arabera, Bergarak irabazteko merituen...

egin zituen talde bakarra: "Lauz-pabost gol aukera garbi izan ditugu partiduan, eta hasieratik erasora jo dugu. Añonkoek asko protestatu dute penaltiatatik, baina betiko kontua da: euren aldekoa izan balitz, argi goa irudituko zitzaiekeen ziurrenik".

**HIRU PARTIDU ASTEBURUAN**  
 Hiru partidu jokatu dira asteburuan Ipintzan: ohorezko gazte taldeak Aurrera Ondarroa hartuko du bihar, 15:30ean; domekan, berriz, infantil taldeak Eibartarrek izango du bisitari 10:00etan eta kadeteek Urolaren aurka jokatu dute, 11:30ean.



Unai Aranek penaltiz egindako golari esker Bergarak Añonari irabazi zion zapatuan Agorrosinen, 1-0.

# JOXAN

## ARRAINDEGIA

lbararai 24. Bergara. Tf. 943 76 70 29

## FRONTOI

## TABERNA

Fraiskozuri z/g.  
**BERGARA**  
 943 76 05 09

## Silvestre Muñoz, s.l.

### pinturak

610 25 99 82  
 610 25 40 37  
 943 76 24 11

Amillaga 1, 10 pabilioia.  
 20570 BERGARA

Pintura-lanak orokorrean  
 •  
 Pintura industrialia  
 •  
 Zoru arinak: sintasolak, moketak...



Francisco Herreo iaz ere izan zen Bergaran. Le Badinage taldearekin etorri zen. Goian ikus daiteke biolina eskuan duela.

Ainhoa Zubillagak, Francisco Herrero eta Esther Mendiburu egingo dute emanaldia

## Ganbera kontzertua bihar, zapatua, udaletxean

MONIKA BELASTEGI

Ainhoa Zubillaga mezzosopranoak, Francisco Herrero biola jotzaileak eta Esther Mendiburu piano jotzaileak egingo dute ganbera kontzertua. Bihar, zapatua, izango da, 19:30ean, udaletxeko osoko bilkuren aretoan.

Ainhoa Zubillaga mezzosopranoak ibilbide luze eta oparoa du: lan sinfoniko-koralak, oratorioak eta opera egiten ditu; antzinako musikan oinarritutako proiektuetan ere parte hartu izan du, eta baita musika barrokoa eta gaur egungoa landu ere. 1987a ezkerro Donostiako Orfeoiko kide da eta bakarlarari gisa European barrena

jardun du. Bestek beste, Prokofiev-en *Iván el Terrible* grabatu du RTVEko Orkestra Sinfonikoarekin eta Koroarekin.


Francisco Herrero biola eta biolin jotzailearen kasuan, sarritan hartu du parte Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin, eta Donostiako Talde Barrokoko kon-

zertinoa da. 1997an Errenteriko Kontserbatorioan irakasle plaza atera zuen.

Esther Mendiburu piano jotzaileari dagokionez, Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin kolaboratu izan du, besteak beste, eta 1982a ezkerro Donostiako Kontserbatorioan irakasle da.

### Egitaraua

- 'Three Songs' ..... (F. Bridge)
- 'Myrten Op. 25' ..... (R. Schumann)
- 'Märchenbilder op. 113 biola eta pianorako' ... (R. Schumann)
- 'Die mainacht/Der gáng zum Liebchen/ Sapphische Ode/Ständchen/Wie Melodien Zieht ez mir' ... (J. Brahms)
- 'Zwei Geänge' ..... (J. Brahms)



### Javier Garciaen erakusketa

Javier Garcia Bergarako margolariak erakusketa ireki du Nahikari tabernan. Paisaia protagonista duten hamahiru olio lanek osatzen dute erakusketa. Marrazki zaindua eta oso koloretsua dute lanek, eta objektu ilunenei ematen dien kolore bizia aipatzekoa da. Erakusketa hila-bete bukaera arte egongo da ikusgai, tabernako orduetan.

Bestalde, gogoratu Nahikari tabernako erakusketen gaineko informazio zabalagoa [www.nahikari.com](http://www.nahikari.com) helbidean aurki daitekeela.

## LABUR

### Alfredo Gonzalez Chirlaquek 'Luisa Fernanda' zarzuela zuzenduko du Arrasaten

Alfredo Gonzalez Chirlaque Bergarako zuzendariak *Luisa Fernanda* zarzuela zuzenduko du Arrasaten. Arrasateko Izaskun Murgia Elkarte Lirikoak antolatu eta prestatu du zarzuela eta Gonzalez Chirlaqueren lana Arrasate Musikaleko orkestra zuzentzea izango da. Emanaldiak Amaia antzokian izango dira, abenduaren 13an, 14an, 19an eta 20an. Emanaldiok 19:30ean izango dira, hilaren 20koa izan ezik; hori 19:00etan izango da. Izan ere, emanaldi hori bukatu eta Gabonetako Kontzertua zuzentzera etorri beharko du Gonzalez Chirlaquek Bergarara.

### Bergarako pintoreek erakusketa zabalduko dute datorren egunean kultura etxean

Bergarako pintoreen margoak egongo dira ikusgai datorren eguenean, hilaren 18tik, aurrera kultura etxean. Erakusketa abenduaren 27ra arte egongo da ikusgai honako ordutegian: astelehenetik egubakoitzera, 18:00etatik 21:00etara eta zapatu eta jaiegumetan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

### Jardun elkartearen Txiskrilabi eta Txapligu taldeetan izena emateko epea zabalik dago

Jardun euskara elkartetik aditzera eman dutenez, oraindik ere aukera dago asteburuetako aisialdi taldeetan izena emateko. Adinaren arabera bi talde daude asteburuako aisialdi programan: bata, Txapligu taldea, 9 eta 11 urte bitarteko neska-mutikoendako; bestea, Txiskrilabi taldea, 12 eta 16 urte bitartekoendako.

Txapligu taldeari dagokionez, zapatu eta domeketan Arrizuriagan elkartzen dira, 16:00etatik 18:00etara bitartean. Txiskrilabi taldekoak, berriz, Udal Euskaltegian elkartzen dira: 12 eta 14 urte bitartekoak, 16:00etatik 18:00etara, eta 14 eta 16 urte bitartekoak, berriz, 18:00etatik 20:00etara. Izena emateko Jardunen bulegotik pasa daiteke edo 943 76 08 19 telefono zenbakira deitu.

### Hilaren 20ko Gabonetako kontzerturako sarrerak salgai jarri dituzte dagoeneko

Dagoeneko salgai daude datorren egubakoitzean, abenduaren 20an, egongo den Gabonetako kontzerturako sarrerak. Honako lekuetan daude eskuragarri: kultura etxean, Udal Pilotalekuan eta Lazkano zapata dendan. Sarrera arruntak hamar euro balio du eta 17 urtetik beherakoena, berriz, bost euro. Kontzertuan jasoko duten dirua *Berria* egunkariari laguntzeko izango da.

### Gure Ametsa elkarteak Benito Lertxundi omenduko du egunean, hilaren 18an

Gure Ametsa elkarteak Benito Lertxundi kantari eta musikari omenduko du datorren abenduaren 18an. Abeslari oriotarrak euskal kulturaren alde egindako lanagatik omendu nahi dute Gure Ametsa elkarteak. Omenaldia San Antonioko elkartean izango da: lehenbizi, Benito Lertxundirekin elkarrizketa-hitzaldia egongo da 20:15ean, eta ondoren, 21:15ean, afaria. Afarira joateko interesa dutenek Gure Ametsan bertan edo 943 76 10 25 (Patxi Uribesalga) telefonoan eman dezakete izena. Plazak mugatuak dira.

Bestalde, gogoratu Gure Ametsak II. Serafin Esnaola Jaiotza Eramangarrien Lehiaketa deitu duela. Serafin Esnaola zenaren omenez antolatutako jaiotza lehiaketa haur, gazte eta nagusiei zuzenduta dago. Jaiotzak abenduaren 20an aurkeztu beharko dira gure Ametsan, 11:00etan.

### Eskubaloi taldearen aldeko rock kontzertua egongo da bihar, zapatua, gaztetxean

Eskubaloi taldearen aldeko kontzertua izango da bihar, zapatua, 22:30ean, gaztetxean. Emanaldia eskubaloi taldeak antolatu du, eta helburua da taldeak aurrera egin ahal izateko dirua eskuratzeko. Herriko hiru taldek hartuko dute parte emanaldian: Clash City Rockes, Zanpeter and the Test Tube Barbies eta Palmera del Bollo taldeek, hain justu ere. Hirurek ere talde ezagunen bertsioak egingo dituzte: lehenak, The Clash taldearenak; bigarrenak, Peter and the Test Tube Babies taldearenak, eta hirugarrenak hainbat talderen bertsio instrumentalak egingo ditu. Sarrerak hiru euro balio du.

Horrez gain, etzi, domeka, irratsaio berezia egingo dute Txappa Irratian herriko eskubaloien gainean. Han, taldearen sorreraz eta historiaren jardungo dute, eta lehengo eta gaur egungo hainbat jokalarik elkarriketatuko dituzte.

E, TXO!

ELKARRIZKETA

AGURTZANE CRESPO/IKASLEA

# “Egunero lan pixka bat egitea eta eskolan emandakoa gainbegiratzea da sekretua”

ENEIDA ITURBE

**Kutxak ikasketak amaitu berri dituzten ikasle gipuzkoar onenak saritu ditu. Horien artean Agurtzane Crespo bergararra dago. Giza Zientziak-Enpresako ikasketak burutu ditu Eskoriatzan.**

**Kutxaren ikasketa-amaierako saria jaso duzu. Gustura?**

Bai, oso. Sekulako ezustekoa izan da. Karrera bakoitzetik emaitza onenak izandako ikasleak saritu dituzte, eta ez nuen uste tartean ni egongo nintzenik. Duela hilabete nire karrerako zuzendariak deitu zidan eta saria emango zidatela esan zidan. Hasieran ez nion sinetsi, ez nuen-eta halakorik espero.

**Sari banaketa Donostian izan zen. Joan zinen?**

Bai, han izan nintzen. Aurreko asteko martitzenean izan zen eta lagun ugari elkartu ginen.

**1.300 euroko saria eman dizute. Zer egingo duzu diru horrekin?**

Oraingoz gorde egingo dut, aurrezten joateko.

**Zein da hain nota onak ateratzeko sekretua?**

Egunero lan pixka bat egitea eta eskolan emandakoa gainbegiratzea. Selektibitatea egin nuenetik ez dut oso gogor ikasi.

**Nota onak lortzeko ikastuna izan behar dela esaten dute.**

Nire ustez ez da egia. Nik ez dut nire burua ikastuntzat jotzen. Sarri irteten naiz. Niretzako zapatua sakratua da, inoiz ez dut zabaldu liburu bat zapatuan. Domeka arratsaldeetan zerbait egiten nuen, baina zapatuetan ez.

**Igerian egiten zenuen lehen. Jarraitzen duzu?**

17 urterekin utzi nuen, baina ahal dudanean igerilekura joaten jarraitzen dut, erlaxatzeko oso ongi etortzen zait.



ditut lehiaketetara, baina ez dut helburu horrekin idazten.

**Giza Zientziak-Enpresa ikasi duzu, karrera berri xamarra. Nola definituko zenuke?**

Ez da erraza definitzea. Nik beti esaten dut Enpresa ikasketen bezalako zerbait dela, baina pertsonen aldea gehiago ukitzen duena. Kontabilitatea eta horrelakoak gutxiago jorratzen ditu, baina pertsonari gehiago begiratzen dio.

**Zer gustatu zaizu gehien karreratik eta zer gutxien?**

Gehien oso praktikoa dela, era praktikoa ikasi dugula. Talde-lan asko egin ditugu. Eskolak bukatu 19:00etan eta 21:00ak arte lanak egiten geratzen ginen askotan. Enpresa batean lan egitea tokatzen zaigunerako prestatu gaituzte. Gutxien, karrerako lehen mailan nengoenean ordu-tegia esango nuke, arratsaldez dira-eta eskolak. Baina orain abantaila iruditzen zait hori.

**Goizean ikasteko jaiki behar, gogorra, ezta?**

Nik frantseseko eskolak nituen goizean; beraz, jaiki egin behar. Hirugarren eta laugarren mailetan lanera joaten nintzen goizetan.

**Goizez lana eta arratsaldez eskola. Noiz ikasten zenuen hain emaitza onak izateko?**

Antolatzea da sekretua. Hala ere, karrerako azken urtea oso gogorra egin zitzaidan, estresatuta ibili nintzen.

**Zein litzateke zure ametsetan lanpostua?**

Giza baliabideen sailean lan egiteko ikasi dugula esaten dute. Ni 2002an Candyko marketineko sailean hasi nintzen praktiketan, eta gero kontratuarekin lanean. Proiektua ere han egin nuen. Marketina ezagutu dut, eta asko gustatzen zait. Beraz, bi horietako batean lan egin nahi nuke, marketinean edo giza baliabideetan.

*“Sekulako ezustekoa izan da saria jasotzea; esan zidatenean ez nuen sinetsi”*



**Literatura lehiaketaren bat ere irabazi duzu.**

Bergaran irabazi nuen, poesia sailean. Hala ere, azkenaldian gutxi idazten dut. Momen-

*“Marketineko sailean edo giza baliabideen sailean lan egin nahiko nuke”*

tuka izaten da; bizitzako momentu batzuetan asko idazten dut eta beste batzuetan ez. Olerkiak eta ipuinak egiten ditut normalean. Parean tokatuz gero aurkezten

TIRABIRAKA/ Bittor Rodriguez



# MULTIOPTICAS



Zorionak

2004

Ibargarai 16 • BERGARA • ☎ 943 76 15 75

# MULTIOPTICAS

MultiOpticas-en ideiak opari ezberdin bat egiteko

Altimetroa



PSP 120 €  
Gabonetan 85 €

Podometroa



PSP 31 €  
Gabonetan 27 €

Termometro digitala

PSP 50 €

Gabonetan 42 €



OAKLEY Artilezko txanoa

Gabonetan 26 €



"Funkyfruit" kutxatilkak

PSP 12 €  
Gabonetan 9 €

Estazio digitala proiektziozko erlojuarekin

PSP 55 €  
Gabonetan 48 €



Prismatikoak 10x32

PSP 35 €  
Gabonetan 28 €



Goienkaria-k  
hitzordua  
egin nahi du  
zurekin  
**ASTELEHENERO**

Egubakoitzez gain,  
astelehenetan ere badugu

- ✓ zer esan,
- ✓ zer erakutsi,
- ✓ zer proposatu.

Zure  
astelehenak... **gurekin**

**Goienkaria**


## • Zer eskaintzen dizu **Asteleheneko Goienkariak?**

- Gure eskualdean asteburuan gertatutakoaren informazioa inork baino lehen eta inork baino sakonago.
- Asteazken zehar albiste izango denaren aurrerapena eta hitzorduen berri.
- Gure enpresen gaineko informazioa.
- Zure herriko kirol taldeen kronikak, emaitzak, sailkapenak...
- Ume eta gaztetxoaren Eskola Kirolaren gaineko informazioa.
- Asteburuko kirol ekitaldiekin egindako argazki-bilduma.
- Gure kirol talde nagusiak (Reala, Athletic...) Debagoienetik ikusita.
- Debagoienean antolatzen diren kultur ekitaldien kronikak.
- Zerbitzu-informazioa: asteburuan jaiotako argazkiak, zorion agurrak, eskelak, intereseko telefonoak, lan poltsa, inbiliarariak...
- Lehiaketak, denbora-pasak...

**O. alea**  
abenduaren 22an  
doan!



BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBREZIBAR

Udaletxearen aurrealdean bi inskripzio daude. Argazkikoa da bat. Eta bestea?

GALDEDEBALDE

1.

Zein ikasketa egin ditu saritu berri duten Agurtzane Crespo ikasle bergararra?

- A/ Giza Zientziak-Enpresa.
- B/ Zuzenbidea.
- C/ Ingeniaritza.

2.

Non hitz egingo dute zapatuan Bergarako eskubaloitza taldearen sorreraz eta historiaz?

- A/ Loiola Irratian.
- B/ Arrate Irratian.
- C/ Txapa Irratian.

3.

Estatu Batuetako zein estatutan dago Yosemite parkea?

- A/ Arizonan.
- B/ Kalifornian.
- C/ Nevadan.

BERGARAROSPETSUAK

Koldo Eleizalde (eta 2)

KOLDO PEREIRA


Nazionalismoaren ideologo nagusietako bat izan zen, eta nazionalismo posibilista izeneko bidea sortu zuen, muturreko independentismoaren eta erregionalismoaren artekoa. Euskal nazionalitatearen bereizgarri nagusitzat jotzen zuen gure hizkuntza. Tematuta zegoen euskararen erabilera Euskal Herri osora zabaltzearekin. 1918an Bilbon egindako hitzaldia *-La lucha por el idioma propio-* eta Eusko Ikaskuntzak urte berean Oñatin egindako biltzarrean *Metodología para la restauración del euskera* izeneko hitzaldian esandakoak horren guztiaren erakusgarri dira. Euskara kulturaren eta harremanen alorretara eraman behar zela aldarrikatu zuen, aurreko belaunaldietako goiko klaseek "herriaren hizkuntza" behar zuena "herriaren hizkera" bihurtu zutela uste zuen-eta.

Idatzitako lanen artean ondokoak nabarmentzen dira: *Raza, lengua y nación vasca, Morfología de la conjunción sintética vasca, Paisajes y razas* eta *Voces toponímicas* (hitzak bildu eta fitxatan sailkatu zituen). 1923ko uztailaren 24an hil zen.

*Euskal nazionalitatearen bereizgarri nagusitzat jotzen zuen euskara*



ARTXIBOA



AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

**NURIA ELKOROBREZIBAR** Rendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Nuria! Galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: **Ezkerrekoa, Matxiategin kalean; eskumakoa, Komenio kalean/ Galde debalde: 1-C, 2-C, 3-B.**



Super BMn emandako 30 euroko erosketa-txartela erabiltzeko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

BONOFOTOA .....

GALDE DEBALDE 1/ ..... 2/ ..... 3/ .....

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK .....

TELEFONOA .....

Cuetara askotariko gailetak

700 g-ko kaxa

**2,45 €**

408 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



Etxebizitzak, garajeak, lokal komertzialak, baserriak, lur sailak...

Burdiñate BERGARA Tel.: 646 665 854  
San Frantzisko 51, 1-D ELGOIBAR Tel.: 943 74 44 67

GARRAIOAK  
**ANDUZU**  
TRANSPORTES

BERGARA  
607 349 043



**Grua zerbitzua**

Zerbitzu publikoa eta era guztietako kargak



**GAZTELU**  
BURDINAKI DENDA

Mintegi, 1 • Tf. 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA



BERGARA  
**Nerea Fernandez**  
Abenduaren 12an, 4 urte.  
Urte askotarako!  
Gurasoak.



BERGARA  
**Garazi Ibarra**  
Abenduaren 16an, 5 urte.  
Urte askotarako!  
Gurasoak, Oihan eta Unai.



BERGARA  
**Izaskun Arriola**  
Abenduaren 12an, 9 urte.  
Zorionak eta muxu handi bat. Luken eta gurasoak!



BERGARA  
**Irati Cuevas**  
Abenduaren 13an, 14 urte. Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Nerea Etxezarreta**  
Abenduaren 6an, 13 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Unai Aranguren**  
Abenduaren 11n, urtebete.  
Urte askotarako!  
Etxekoan partez.



BERGARA  
**Nerea Agirrezabal**  
Abenduaren 9an, 9 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak, bereziki Idoia.



BERGARA  
**Alazne Roman**  
Abenduaren 9an, 10 urte.  
Urte askotarako!  
Jokin, Amagoia eta Asier.



BERGARA  
**Jose Serrano**  
Abenduaren 15an, urteak.  
Urte askotarako! Zure emazte eta seme-alabak.



BERGARA  
**Markel Muniategi**  
Abenduaren 18, 5 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak, batez ere, Ibon.



BERGARA  
**Sara Landa**  
Abenduaren 18an, 2 urte.  
Urte askotarako!  
Gurasoak eta Beñat.




BERGARA  
**Xabier Aldai**  
Abenduaren 17an, 4 urte.  
Zorionak bikote!  
Gurasoak.




BERGARA  
**Iker Aldai**  
Abenduaren 17an, 4 urte.  
Zorionak bikote!  
Gurasoak.



BERGARA  
**Paulo Garitano**  
Abenduaren 13an, 6 urte.  
Urte askotarako!  
Zorionak etxekoan partez.



BERGARA  
**Saioa Agirre**  
Abenduaren 9an, 8 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Jon Marzo**  
Abenduaren 14an, 8 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Maite Gantxegi**  
Abenduaren 9an, 25 urte.  
Urte askotarako!  
Lagunak.



BERGARA  
**Roberto Padilla**  
Hilaren 12an, 35 urte.  
Urte askotarako!  
Miren eta Joseba ilobak.




BERGARA  
**Amaia Basterra**  
Abenduaren 14an, 3 urte.  
Urte askotarako!  
Familia, bereziki Alazne.



BERGARA  
**Maribel Soto**  
Hilaren 14an, 29 urte.  
Urte askotarako!  
Zorionak! Asier eta Irati.



ELGETA  
**Leire Aranzeta**  
Hilaren 17an, 11 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Ibon Aguado**  
Abenduaren 11an, 6 urte.  
Zorionak! Aitajauna, amama eta familia.



BERGARA  
**Pako Moreno**  
Hilaren 12an, 45 urte.  
Urte askotarako!  
Zorionak etxekoan partez.

## Adi!

Argazkiak emateko lekuak:  
**Bergara:**  
Berrigara, Inzar jauregia, Barrenkalea 33  
**Antzuola:**  
Udal Liburutegia, astelehenetan 17:00etatik 19:00etara  
**Elgeta:**  
Erosle-Baltxongua

# Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak  
BERRIGARAren bidez! Ekar ezazu bere argazkia\*  
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

\*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm. Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu. Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra BERRIGARAren agertu ondoren. Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.

**GURIA**  
Taberna  
Bidekurutzeta 5  
BERGARA  
943 76 20 34

**OILAGORRA**  
TABERNA  
Barrenkalea 21 BERGARA

**SANTOS**  
TIEN 21  
Etxetresna elektrikoak  
eta argiztapena  
Masterreka 2. BERGARA  
Tf. 943 76 26 10

PINTXO eta BOKADILLOAK  
SEKULAKO MARTXA!!  
**EUXEBIO II**  
Irala z/g  
Bergara  
943 76 07 92

**HIRU BIDE**  
JATEKOA-DENTA  
Urteaga 9  
BERGARA  
Tf. 943 76 18 45





PROFESIONAL  
*liberalen*  
GIDA

**GESTORIAK**  
EGUREN  
Irala 3. 943 76 21 65

**PROKURADOREAK**  
JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA  
Easo 57, 3-esk. (DONOSTIA).  
943 45 27 26 / 656 41 55 49

**AHOLKULARITZA**  
**AIERDI AHOLKULARITZA**  
Artekalea 1. 943 76 03 50  
**TBG AHOLKULARITZA**  
Matxiategi 36. 943 76 90 83  
**ZUHURKI SL**  
Bidekurutzeta 46. 943 76 33 53

**ABOKATUAK**  
RAFAEL ARANBURU  
Irizar 5. 943 76 10 81  
MILAGROS LARRAÑAGA  
Simon Arrieta 1. 943 76 16 28  
BERNARDINO MAIZTEGI  
Irizar 5. 943 7610 81  
ANA MOZOS  
San Pedro 6. 943 76 45 52  
JUAN ANTONIO SIERRA  
Irizar 2. 943 76 03 35

**ARKITEKTU TEKNIKOAK**  
JESUS LASKURAIN PEREZ  
Zurradero 4. 943 76 53 53

**ARKITEKTUAK**  
JON MUNIATEGIANDIKOETXEA  
Barrenkalea 22. 687 73 75 67

# Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2003ko abenduaren 12a / 182. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

## Kontzertua eskainiko dute musika ikasten ari diren gaztetxoek

ENEIDA ITURBE

Gabon inguruan Bergarako Musika Eskolan ikasten diharduten neska-mutil antzularrek kontzertua ematen dute herrian. Aurten ere hala egingo dute; martitzenean izango da kontzertua, udaletxeko bilkuren aretoan, arratsaldeko 19:00etan.

Gaiean ditugu Gabonak, eta laster hasiko dira horien inguruan antolatzen diren ekitaldiak. Datorren astean, esate baterako, Bergarako Musika Eskolan ikasten ari diren herriko neska-mutilek kontzertua eskainiko dute. Kontzertu hori urtero egiten dute Gabon inguruan. Aurten martitzenean izango da, arratsaldeko 19:00etan, udaletxeko bilkuren aretoan.

Berrogeita hamar bat antzularrek hartuko dute parte kontzertu horretan, 7 urtetik hasi eta 18 urte bitartekoak. Errepertorio zabala eskainiko dute; hori bai, asko Gabonetako abestiak izango dira.

Klarineta, txistua, gitarra, flauta, oboea, soinua eta biolontxelo dira herriko gaztetxoek jotzen dituzten instrumentueta-



Musika Eskolako ikasleek kontzertua egingo dute martitzenean, 19:00etan, udaletxeko aretoan.

ko batzuk. Abestiak bakarka, bikoteka zein pianoaren laguntzarekin joko dituzte.

### BUKAERA BEREZIA

Orain arte trikitiaren soinu alaiarekin amaitu izan dute kontzer-

tua Musika Eskolakoek, baina aurten Ken 7 taldearen *Ilargia* abestia joaz eta kantatuaz eman go diote amaiera. Gitarrak, biolina eta biolontxeloaren musika eta Hizkuntza Musikaleko 1. eta 2. mailan dauden umeen ahotsak

izango dira protagonista abesti horretan.

Abestuko duten neska-mutikoek ez dute Hizkuntza Musikala ikastera Bergarara joan beharrik izaten, lehenengo bi mailak Antzuolan ematen dituzte-eta.

## HERRITARREN HITZA / Karmele San Sebastian • Erretiratua

### Urte zaharrari agurra, berriari eskaera

**B**i mila eta hirugarren urtia be badoiarkigu, bihar bada guk nahi baino bixkorrago, ze emoten dau eguneko 24 orduak segundo bihurtu dirala. Baina bizitzaren legia danez, onartzia besterik ez jaku geratzen.

Berrixaren atarixan sartu garen honetan, urtian zihar hainbat proiektu, buru hauste eta ekintza izan ditugu, eta orain danen baloraziñua egitteko garaixan gare. Baloraziño honen ondorixuak gehixenetan egitten ditudanaren kriterixuaren araberrak izaten dira. Batzuk, atseginak, pozgarririk, barrera baterik

eta lasai lagatzen doskuenak. Baina, dana gazi-gozua izaten danez, beste gauza batzuk halako ezadostasun puntu bat sortzen doskue, batez be egin barik, mahai gainian geratzen diran horrek. Aurrekua aittatuta, esan geinke aurrera begira tinko eta itsaropentsu segitzeko gogorik ez dogula falta.

Urtiaren akabera honetara arrimatuz bagoiaz eta, badira, laster izango diran egun berezi



**"Lokal berrixa, etxe babestuak eta eguneko ospitala"**

Elkartetik, bagatoz eskaera horrekin.

Datorren urtean ondorengok martxan ikustia nahiko

honetan, oso hunkigarrixak egitten jakun pertsonaiak, Olentzero eta Erregiak hain zuzen be. Pertsonaia honek esku zabal eta bihotz haundikotzat dauzkagu, eta hori dala eta, zenbait eskaera luzatzen jeu egun honetan, eta gu be, Erretiratuen

ginuzke: guretako lokal berrixa, etxe babestuak eta eguneko ospitalea izango dan etxia. Zergatik gauza honek? Arlo beharrezkuak ikusten ditudugulako. Urtetan aurrera goiatzenoi sortzen jakun muga eta arazoei maila batian irtenbidia emoten lagunduko leukielako. Hurrengo etorriko diranei ez daukagu proiektu honek martxan ikustia baino opari hobiagorik egitteko biderik. Ea ba asmo horrek gauzatzen diran.

Bide batez, aukera hau aprobetxatuz, danoi desiatzen dotsuet urte berrixa izan deila aberatsa, bake eta zorionian.

## LABUR

### Santo Tomas eguneko feria egubakoitzean

Herri Ikastetxean azoka jarriko du datorren egubakoitzean, hilak 19, Santo Tomas eguna ospatzeko. Aurten eskolako patioaren eta elizaren arteko gunean jarriko dute feria, eta arratsaldeko egongo da ikusgai. Abereak eta baserriko produktuak egongo dira. Azokaren ostean, gurasoek prestatutako txokolatea eta txistorra jango dituzte umeek.

### EHNA egiteko aukera egongo da domekan

Euskal Herriko Naziotasun Aitorpena, EHNA, tramitatzeko aukera eskainiko du Bai Euskal Herriari taldeak Antzuolako udaletxeko oso bilkuren aretoan domekan honetan, hilak 14. Hiru argazki eraman beharko dira eta 15 euro ordaindu. Errolda papearak beharrezkoak dira EHNA tramitatzeko, baina antolatzailerak arduratuko dira horietaz. EHNA egiteko ordutegia ondorengoa izango da: goizez 11:00etatik 13:00etara eta arratsaldeko 18:30etik 20:30era.

### 'Sufrimenduaren mapa' liburuaren aurkezpena

Sabino Ormazabal Elola ekologista eta kazetariak idatzi berri duen *Sufrimenduaren mapa (osatugabea)* liburuaren aurkeztuko du datorren egunean, hilak 18, udaletxeko aretoan, arratsaldeko 19:00etan. Euskal gatazkak eragindako sufrimenduaren erradiografia da liburu. Orain, Sabino Ormazabal Euskal Herriko mugimendu sozialen historia prestatzen ari da, *Gara* egunkarian eszedentzia hartuta. Elkarrik antolatutako ekintza hori. Eguenean bertan sinadura bilketa egingo du. Elkarriren helburua Antzuolan 350 sinadura batzea da.

LANA

# Untxien intseminazio zentroa jarriko dute Antzuolan

ENEDIA ITURBE

Hazitarako 200 bat untxi jarriko ditu Gipuzkoako Untxizainen Federazioak Antzuolan. Orain arte ere untxi granja izandako iraineko Maria Jesus Gonzalezen granja erabiliko du horretarako. Datorren urteko apirillean jarriko dute martxan, konponketa lanak bukatzean.

Maria Jesus Gonzalezek Irainen untxi granja Euskadiko Untxizainen Federazioak erosi du. Maria Jesusek okelatarako untxiak hazten zituen han; Federazioak, aldiz, intseminazio zentroa jarriko du.

Frantzia eta Katalunian onkatutako linea genetiko bereko berrehun bat untxi ar jarriko dituzte granjan. Horiak balio genetiko handikoak izango dira, eta hazitarako erabiliko dituzte.

Euskadiko Federazioak dituen beste granja batzuetako untxi emeak intseminatuko dituzte Antzuolakoan haziarekin. Federaziotik kanpo ez dute zaltuko, ez hazirik, ezta untxirik ere. Juriñe Arroita Federazioko tek-



Hazitarako untxiak jarriko ditu Euskadiko Untxizainen Federazioak Antzuolan.

nikaria arduratuko da Antzuolako granjaz. Bere hitzetan intseminazioak okelatarako untxiak sortzeko lana asko errazten du eta beharrezkoa da.

Apiril inguruan jarriko dute martxan granja. Ordurako dena prest izateko, teiltua konpon-tzen eta garbiketa egiten ari dira orain.

## KIROLA

### Pilota txapelketako finalerdiak jokatuko dituzte bihar

Eskuz binakako VII. txapelketa azken txanpan da. Bihar, zapatua, finalerdiak jokatuko dituzte eta datorren zapatuan, hilak 20, finalak. Lehenengo mailako finalerdietako bat jokatu dute jadanik; beraz, badira finalista batzuk: Oruesagasti eta Murua-mendiarrak elosuarra. Zapatuan goizeko 10:00etan hasita jokatu-ko dituzte beste finalerdiak. Andres Arbulu eta Jose Mari Mendizabal Jon Gurutz Biteri eta Iban Unanueren aurka arituko dira lehenengo, eta, ondoren, bigarren mailako bikoteak.

## PARTIDUAK

### FUTBOLA

Abenduak 14  
12:00: Antzuola-Eibartarrak (Neskak)

### PILOTA

Abenduak 13  
17:00: Paletaz final erdia.

## EMAITZAK

### FUTBOLA

Antz. 4 Eibartarrak 2 (2. erre.)

### PILOTA

Gipuzkoako txapelketa  
Olalde-Gazteleku (eskuz kad.) . 19-22  
Olalde-Eskoriatza (eskuz nag.) . 18-22  
Olalde-Altzaparrak (paletaz na.) 35-18


## ZINEMA

### 'Shin Chan' emango dute domekan

E.I.

Domekara izaten da umeendako zine emanaldia, arratsaldeko 16:30ean. Normalean Orlanen izaten da, baina abenduan zehar udaletxean egiten ari dira. Domeka honetan *Shin Chan* filma eskainiko dute; beraz, marrazki bizi-dunetako mutiko bihurriarekin gozatzeko aukera izango dute gaztetxoek.

Datorren astean, Gabonetarako bereziki pentsaturiko filma eskainiko dute, *Esperando la Navidad*. Gainera, zozketa egingo dute zinemara joaten direnen artean. Urteko azkeneko filma *Asterix eta Obelix* izango da. Urtarrilean *Princesa por sorpresa* nagusiagoendako filma, *Atlantis* eta *Simbad* eskainiko dituzte. Emango dituzten film gehienak Walt Disney etxearenak dira.



Domeka honetan *Shin Chan* emango dute zineman.

### Konstituzioaren aurkako pintada

Azkenaldian pintada ugari azaldu dira Antzuolako hormetan, azkenak pasa den aste-buruan egindakoak. Espainiako Konstituzioaren eguna izan zen abenduaren 6an eta Aiherra kaleko etxeetako horman *Konstituzio arrotzari intsumisioa* aldarrikapena ikus daiteke orain. Pilotalekuko kanpoko hormetan ere duela gutxi egindako zenbait pintada daude.

Udalak pintadak ezabatzeko asmoa dauka, baina oraindik ez du horren gaineko erabakirik hartu./E.I.



SUKALDEKO ALTZARIAK  
**Harizki**

**MUEBLES IGEA**

Sukalderako eta bainurako altzariak  
Altzari rustikoetan espezializatuak

**zabalo**  
IGELTSEROTZA

Jose Luis Zabalo

Kalegoi 9, 1. solairua  
ANTZUOLA.  
Tel. 943 76 60 89  
Faxa: 943 76 60 14

**ZAHAR BERRITZEAK:**  
Fatxadak  
Bainugela eta sukaldea  
Lokal komertzialak  
Teilatuak

**Eta orain....  
GREMIOEN  
KOORDINAZIOA**

# Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2003ko abenduaren 12a / 166. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldegi • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

## Udal aurrekontua 2004ra arte ez dute onartuko

IRATI AGIRREAZALDEGI

Udal aurrekontua urtea amaitu aurretik onartu zuten, baina aurten erabakia atzeratu egingo dute. Batzorde bakoitzeko arduradunek aurrekontua aztertu eta idazkariari jakinarazi diote, eta, horren ondoren, aurrekontu osoa zein izango den adostuko dute.

Udaleko batzorde bakoitzeko buruek aztertuta izan behar zuten honezkero proposatutako aurrekontua, baita aurrekusten dituzten ezohizko gastuak jakinarazita ere.

Udaletik jakinarazi digutenez, batzorde gehienek aztertu dute proposamena eta baita beraien aurrekontuak eta egin asmo dituzten gastuak azaldu ere. Baina oraindik Baserritarren batzordea eta Hirigintzako falta dira.

Behin proposamen guztiak jasota, zein inbertsio egin daitezkeen eta zein ez ikusi beharko da, eta, gero, zinegotzi guztiak aurrekontua onartu edo ez erabakiko dute osoko bilkuran. Hala ere, 2004ko aurrekontua ez dute urtea amaitu aurretik onartuko.



GOIENKARIA

Espaloia aretoko lanak 2004ko aurrekontuan sartuko dira, seguru aski.

Aurrekontua zenbatekoa izango den zehaztu ez badute ere, aurten egindako zenbait lan datarren urteko gastuetan sartuko dira: Aixolako bidea konpontzea

eta semaforoak, esaterako. Bestalde, Espaloia aretoan aurten hastekoak ziren lanean, baina obrarik egin ez denez, seguru aski datorren urtean egingo dira.



### Kontzertua eta zurrakapotea gaztetxean

Lau musika taldek jardungo dute datorren barikuan, abenduaren 19an, gaztetxean izango den kontzertuan. Lindane, E-Dolls, K-104 (argazkian) eta Lurgor taldeek gaueko 22:30ean hasiko dute emanaldia. Denetariko musika estiloak izango dituztenek hiru euroko sarrerara ordaindu beharko dute. Kantuan eta dantzan nekatu eta indarberritu nahi dutenentzako, zurrakapotea izango da Elgetako gaztetxean./I.A.

## KIROLA

### Felix Azpiri lehena Bolo Txapelketan

Abenduaren 7an, domekan, ipini zen abian aurtengo Gabonetako Bolo Txapelketa. Usadio bihurtu den txapelketa honetako lehen kanporaketan 21 lagunek hartu zuten parte.

Elgetarrek ez ezik kanpokoek ere jardun zuten lehian. Felix Azpiri bergararra izan zen lehen saiko irabazle, hiru txirlo botata. Felix dago, beraz, sailkapen orokorreko lehen tokian. Markina aldeko Egoitz Garate eta Josu Arantzabal elgetarra bigarren eta hirugarren dira hurrenez hurren. Horiek bina txirlo bota zituzten.

#### HIRU SAIO GEHIAGO

Datozen bi zapatuetan jokatuko dira hurrengo bi kanporaketak eta azken saioa, berriz, abenduaren 26an, barikuan, izango da. Guztiak gaueko 23:30ean, kiroldegiko bolatokian.

Txapelketa amaieran sailkapen orokorreko hiru lehenengok jasoko dituzte sariak, baita lehen emakumeak ere. Lehenengo kanporaketan emakume bakarra izan zen eta ez zuen txirlo bat bera ere bota.

Antolatzaileen esanetan, txapelketa aurrera joan ahala baliteke partaide gehiago izatea.



GOIENKARIA

Elgetako eta kanpoko bolariak hartu zuten parte lehen kanporaketan.



PANA DE ROKUA  
GAZTETXEAL

- Eguneko menua
- Asteburuetan menu berezia
- Espezialitateak: babarrun-jana eta saihetsa

SALBADOR 10 ELGETA TEL. 943 76 82 73

ELKARRIZKETA

KARMELE BENITO/FAMILIA MEDIKUA

*"Neurri handiagoan edo txikiagoan, baina denok daukagu estresa"*


Estresaren gaineko hitzaldia izango da abenduaren 17an iluntzeko 20:00etan liburutegian. Karmele Benito sendagile donostiarra estresa zer den eta nola murreratu egin dakioken argitzen saiatuko da.

**Zer da estresa?**  
Osasunerako Mundu Erakundeak ematen duen definizioa oso orokorra da. Horren arabera, estresa gorputzak estimuluetan aurrean ematen duen erantzuna da, zehatza ez dena. Baina neurri iritziz erantzun hori eman beharrezko gauza berri baten aurrean edo baita egoera ezagun bati nola erantzun ez dakigunenean ere. Horrekin zera esan nahi da: denok nolabait badugula estresa.

**Edozeinek izan dezake, beraz, estresa?**  
Neurri handiagoan edo txikiagoan, denok daukagu. Ez dugu behar luze hartzen lasaitzeko, asaskatzeko, lo egiteko, etxeko... Gure bizimodua dela eta zahiko zaila izaten da osasuntsu bizitzea eta gorputzak horren aurrean erreakzionatu egiten du, eta estresa eragin. Osasuna alde fisikoan, fisikoan eta sozialean aldatzen da eta horietako maileko batean haustura badago, estresa sor daiteke.

**Estresa zerk eragiten du?**  
Faktore estresagarriak asko dira. Kritika izan daiteke estresaren eragile, edo nagusiaren barrera, familiako jokamoldeak... Oro har, gauza berriek estresa sortzen dute.

**Nola antzeman genezake estresatuta gaudela?**  
Modu askotan ager daiteke estresa, baina agertzeko bide komunak nekea, bizkarreko mina eta buruko mina dira. Bestalde, gaitortasun kronikoetan faktore eragile zuzena da. Asman, hipertenstioan eta bihotzeko gaitzetan, esaterako.



OLAIA ESKITXABEL / TOLOSALDEKO HITZA

*"Estresa agertzeko bide komunak nekea, bizkarreko mina eta buruko mina dira"*

**Estresari aurre egiteko zein bide hartu behar dira?**  
Bide egokiak asko dira. Bate-tik, jana zaintzea egokia izan daiteke. Fruituek eta barazkiek, esaterako, eragin antioxidatzailea dute. Harremanak zaintzea ere modu ona da. Horrez gain, garran-

*"Oso estresatuta gaudenean beharrezkoa da profesionalen laguntza"*

tzitsua da konturatzea laguntza noiz behar dugun. Oso estresatuta gaudenean beharrezkoa da profesionalen laguntza: medikuak, homeopatia, akupuntura, psikoterapia, erlaxazio teknikak... Azken baten, barruko baliabideak garatzen lagunduko digute.



**Jaietako irudia Debaguneko egutegian**

Debagunea, Debagoieneko Euskara Elkargoak 2004rako egutegia kaleratu berri du. Ibarreko herrietako jaietan ateratako argazkiak bildu dituzte aurtengo alean. Azalerako, Elgetako jaietako irudi bitxi bat aukeratu dute, asto karrerakoa, hain zuzen ere. Herriko hainbat pertsona ezagun azaltzen dira erretratuan. Goibeko Kultura Elkarteak bere bazkideei egutegia doan banatzeko asmoa du. Baina jakinarazi digutenez, egutegia erosteko aukera izango da; eskuratu nahi dutenek liburutegian izango dute salgai hiru euroren truke.

**LABUR**

**GOIBEKOKALEn argitaratzeko Elgetako argazki zaharrak behar ditugu**

Askok etxeko kaxoirèn batean aspaldiko erretratuak izango dituzue gordeta. Jakin ezazue argazkiok GOIBEKOKALEn argitaratu nahi izanez gero, gurekin harremanetan jarri besterik ez duzuela. Hain zuzen ere, 943 76 92 71 telefonora deitu eta gu joango gara bila. Beraz, lagun artean, familian zein herriko ekitaldi edo txokoren batean aspaldi ateratako argazkirik baduzue, dei egiguzue.

**Abenduan ez da aerobik zerbitzurik izango, jendea eskoletara joaten ez delako**


Udaleko Kirol Zerbitzutik jakinarazi digutenez, abenduan aerobik zerbitzua bertan behera geratuko da. Bederatzi laguneko taldea badago ere, gutxi batzuk baino ez dira eskoletara joaten, eta horregatik egin dute etena. Baliteke aurki beste deialdi bat egitea. Asmoa da zerbitzua berriz abian jartzea.



**RECYDE, S.A.**  
Pagotza pol. ind. 20690 ELGETA, Gipuzkoa  
Tel. zentrala: 943 78 80 00. Faxa: 943 78 90 10  
Posta elektronikoa: recyde@recyde.es



ISO 9002  
QS 9000  
ISO/TS 16949



Jesus Mari Montiel  
**ITURGINTZA  
ETA BEROGAILUAK**  
Artekale 3  
Mo: 656783299 Eibar  
Tel: 943 70 07 19  
**KONPONKETAK  
SUKALDE  
ETA BAINUGELETAN**



**ELGETA AUTOAK**

Berraondokoa z/g ELGETA  
T. 943 76 82 02 F. 943 76 82 98

## ERRETRATUZAHARRA

ANTZUOLA

Neska koadrila  
erromerian,  
1943 inguruan

**D**uela hirurogei urte, 1943 inguruan ateratakoa da honako argazki hau. Hor ageri diren neska gazteek 18 edo 19 urte zituzten garai hartan, eta arratsalde pasa joan ziren erromeriarra, merienda eta guzti.

Argazkian Bergarako San Martzialen daude antzuolarrak, hango erromeriarra joanda. Oinez egiten zuten erromeria zegoen ermitarainoko bidea; hala ere, dantza egiteko orduan, nekerik ez zen igartzen. Erromeriarra heldutakoan etxetik eramandako merienda hartzen zuten eta gero egiten zuten dantza. Lehenengo neskek neskekin irteten ziren dantzalekura, mutilen batek dantzatzeko eskatu arte. Argazkia atera zuten egunean Bergarara joan ziren arren, Antzuolan ere erromeria ugari egiten ziren garai hartan; Gorlan eta Pagamendin, besteak beste.

Argazkian dauden emakume gehienak orain ez dira Antzuolan bizi, kanpora joanak dira. Argazkian, aurrealdean, ezkerretik eskuinera ageri dira Rosario Mendiguren, Margarita Iturbe, Maria Dolores Lete eta Maria Lizarralde. Atzealdekoak, berriz, Amparo Sagarna eta Maria Teresa Telleria dira, lehena ezkerrekoa eta bigarrena eskuinekoa.

Argazkia: Margarita Iturbe




## ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituztu!

OGIZUN

koop. elk.  
okindegia

Ibargarai 44-46    Zubillaga 10  
BERGARA            OÑATI  
943 76 45 53      943 78 24 13

JAUJA  
KIROLAK

Irizar 2. BERGARA  
943 76 14 95

ARDATZA

Brikolajea

Ateak eta zokaloak  
Horma-armairuak  
Sarrailak  
Heldulekuak

Koadroak markoan ipini  
Era guztietako moldurak  
Apalak  
Kaxoiak

Masterreka, 4-behea. Bergara. 943 76 18 93



Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak  
sintasola - moketak - gotelea  
pintura industrial

Errekalde auzoa 5, 1.a  
ANTZUOLA  
Tf. 943 76 62 02 /  
666 517 295

TOKI-ONA  
Bodegoia-taberna


Eguneroko janariak  
Txitxizotzak  
Kazolatxoak  
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA  
Tel. 943 76 39 53

UREDERRA  
ITURGINTZA

Iturgintza  
Berogintza  
Aire egokitua  
Konponketa  
Salmenta

Arruriaga 11  
686 943 918



Aukera onenak. Orrazkera apainenak.



- Boni Laskurain 2  
 BERGARA  
 943 76 56 05
- Txapelketetako Gipuzkoa taldekoak
  - Kerastase tratamend.
  - Makillaje bereziak
  - Abangoardia lanak

## disdira

- Masterreka 7  
 BERGARA  
 943 76 00 55
- Luzatzeak
  - Azken joerak
  - Ezkontzak
  - Metxak eta moldeatuak




- Espoloia 4  
 BERGARA  
 943 76 97 75
- Ile luzatzeak
  - Aurpegiko larruazal garbitzea
  - Solariuma



- Ozaeta 3  
 BERGARA  
 943 76 22 54
- Ilerako tratamenduak
  - Teknika berriak
  - Era guztietako orraskerak

## ORRASKI

- San Pedro 6  
 BERGARA  
 943 76 47 01
- Ile apaindegi mistoa
  - Kolore bereziak
  - Ezkontzak
  - Solariuma



- Ibargarai 42  
 BERGARA  
 943 76 72 76
- Ile mozte eta kolore pertsonalizatuak
  - Depilazioa eta makillajea
  - Solariuma dutxarekin



- Zurradero 2  
 BERGARA  
 943 76 43 07
- Gizonezkoendako
  - Labanaz moztea
  - Azken tendentziak
  - Bizartegia
  - Kolorea

## SANCHEZ

- Fraiskozuri 4  
 BERGARA  
 943 76 23 70
- Gizonezkoendako
  - Labanaz moztea
  - Klasikoa/modernoak
  - Bizartegia
  - Kolorea

## ADATS

- Herri lagunak 4  
 BERGARA  
 943 76 49 51
- Europako azken tendentziak
  - Zerbitzu berezi eta pertsonalizatua
  - Solarium bertikala

## Jean Louis David

- Ibargarai 43  
 BERGARA  
 943 76 22 48
- Teknika aurreratuenak
  - Deskontu txartelak
  - Solariumerako bonoa
  - Estilistaren aholkuak, konpromiso barik

## IZARRA

- San Pedro 23  
 BERGARA  
 943 76 29 72
- Luzatzeak, ile-kordak, rastak
  - Ilerako bitxiak
  - Solariuma dutxarekin

# GREMIOEN GIDA

zure etxearen osasun onerako

## ARREGI AROZTEGIA



Urteaga 20  
943 76 11 73  
Erakusketa:  
Bidekurutzeta 38  
943 76 31 03

- Orotariko arotz lanak
- Sukaldeak
- PVC leihoak



## UR kristaldegia

Martoko 1-3  
943 76 54 68

- Ispiluak
- Beirateriak
- Biselatuak
- Plastikoak



## AGIRRE MARGOAK

Ortuibar 1, 3-C  
943 76 53 82  
Tailerra:  
Alkabieta 7

- Orotariko pintaketa lanak

## ARISTEGI-TOLA



ITURGINTZA

Bolu 26  
943 76 54 17

- Kalefakzioa
- Bainurako altzariak eta dekorazioa
- Konponketak

## UGARTE ARROZTEGIA-ALTZARIAK

San Juan 1 A  
943 76 54 91  
F 943 76 08 04

- Orotariko arotz lanak
- Apainketa, soruak, leihoak, atek



## J.M. IZAGIRRE Igeltseritza

Loidi baserria,  
Angiozar  
943 76 56 86

- Teilatu, fatxada, sukalde eta bainugelen berrikuntza

## GOYSMA

Urteaga 9  
943 76 98 12

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa

## BERGARA Margoak

Amillaga 1, 1. pab.  
162 p.k.  
943 76 97 31  
F 943 76 97 32

bergara.margoak@terra.es

- Orotariko pintaketa lanak
- K-21 agiria

